



memoria



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

AURKIBIDEA

1	SAREEN SAREAREN AURKEZPENA	
	Nor gara?.....	4
	Sare bazkideak.....	5
	Ikuspegia, misioa eta balioak.....	6
	Erakundea.....	8
2	ZER EGIN DUGU 2024an?	
	EHSS indartzea eta dinamizatzea.....	10
	Gobernantza eta eragin proaktiboa.....	18
	Harreamanak eta aliantzak.....	31
	EHSSren posizio soziala.....	38
3	KOMUNIKAZIOA	
	Sareen Sarea komunikabideetan.....	43
	Sareen Sarea sare sozialetan.....	44
4	KONTUAK ARGI	
	2024ko diru-sarrerak eta gastuak.....	45

2024ko jardueraren memoria
Sareen Sarea
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

Diseinua eta maketazioa:
Sareen Sarea, 2025.

Laguntzailea:

Nor gara?

Sareen Sarea Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen sareak biltzen dituen elkarte da. Sorrera formala 2014ko apirilaren 8an izan bazuen ere, hura sortzeko ideia urte batzuk lehenago sortu zen, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian.

Historian, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sakabanatuta eta atomizatuta egon izan dira. Hori dela eta, azken urteetan presentzia, aitorpena, elkarrizketarako gaitasuna eta eragin politikoa handitzen laguntzen dieten sare eta federazioetan artikulatzeko ahalegina ikus daiteke.

Sareen Sarea hainbat alorren eta lurralderen bat egitearen adierazpide agerikoena da. Euskadiko Hirugarren Sektore guztia batzeko helburuz sortu zen, eta kohesio eta parte-hartze handiagoa dituen gizarte justuago eta solidarioago baterantz aurrerapausoak emateko helburuz. Esklusiboki alderdi ekonomikora bideratuta dagoen eta pertsonen erreparatzen ez diren garapen-eredu baten aurrean kritikoagoa den gizarte bat du helburu, eta gizarte-eredu gizatiarrago baterantz aurrerapausoak emateko proposamenak eta alternatibak sortu nahi ditu kolaborazioaren bidez.

Sare bazkideak

2024an, guztira, 18 sarek osatu zuten Sareen Sarea:



Astialdi Sarea



Coordinadora de ONGD Euskadi
Euskadiko GGKEen Koordinakundea



EAPN Euskadi



EHLABE



Elkartean



Euskal Gorrak



Euskofederpen



Salud Mental Euskadi
Buru Osasuna Euskadi
Fedeaefes



FEVAS



Gizatea



Harresiak Apurtuz



Hirekin



Hirukide



Lares Euskadi



ONCE



REAS Euskadi



Umeekin



UNAD Euskadi

Hitzarmena:
En convenio con:



Unicef Comité País Vasco

Ikuspegioa, misioa eta balioak

Ikuspegia

Sareen Sarearen helburua hau da: gizarteak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren erreferente eta aglutinatzaile gisa ikustea, gizarte- eta politika-alorreko hainbat eragilerengan eragiteko eta haiekin hitz egiteko gai dena; gizarte justua, kohesionatua, inklusiboa, solidarioa, parekidea, parte-hartzailea eta demokratikoa eraikitzen laguntzen duena; inklusio soziala, bizi-kalitatea hobetzea eta pertsonen eskubideak efektiboki betetzea defendatzen duena; sektorearen egituraketan ekarpena egiten duena Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala indartsuagoa eta kohesionatuagoa izan dadin, betiere duen aniztasunari erreparatuta.

Misioa

Gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak berdin errespetatuko dituen, zaurgarrienei arreta berezia eskaintzen diena, eta ongizate kolektiboaren eta eraldaketa sozialaren bidez, hiritar guztien konpromiso aktiboa sustatzea. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala bateratua, sendoa eta aitortua izan dadin lan egiten dugu, eta hark gaitasuna izan dezan gizarteko eta instituzioetako eragileetan eragiteko eta haiekin elkarriketak izateko.

Balioak



Elkartasuna

Babesgabeen eskubideen erantzukizuna.



Eraldaketa

Eraldaketa sozialarekin erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen aldarrikapena eta defentsa, hiritarren parte-hartze eta erantzukizun aktiboa sustatuz.



Gardentasuna

Kudeaketan erantzukizunez jokatzeko; horretarako, erabakiak hartzean eta informazioa maneiatzean gardenak izatea eta erakunde-kideek, administrazio publikoek, gizarte-eragileek eta gizarteak bertara sartzeko aukera izan dezaten bermatzea.



Kooperazioa

Hirugarren sektoreko erakundeekin (eta beren artean), administrazioarekin, eta hiritarrekin, hiritarren helburu komunak eta esperotako misioa betetzen direla bermatzeko.



Pluraltasuna

Sareen Sarearen baitako aniztasuna eta sektoreko aniztasuna aitortzea, eta barne-demokraziaren eta parte-hartzearen bidez beren ordezkagarritasuna bermatzea.



Independentzia

Pentsamenduan eta ideologian eta independentzia instituzionala, politikoa eta ekonomikoa, gizarte-eragileekin duen harremanean eta eraginean faktore horiek nahas ez daitezen.



Demokrazia

Erantzukizun komuna eta parte-hartze ekitatiboa eta inklusiboa sustatzea misioari eta ikuspegiari dagokionez, eta erabakiak elkarrekin hartzea kide guztiak ados dauden diskurtso, posizionamendu eta akordioak lortzeko.




Autonomia

Sare bakoitzaren errealitatearekiko autonomia eta Sareen Sarearen diskurtsoa, posizioa eta aldarrikapenekiko errespetua, interes komunen aldeko lan eginez.



Erakundea



Batzar Nagusia

Sareen Sarearen Biltzar Nagusia erakundearen erabakitze organo gorena da. Gutxienez urtean behin elkartzen da, eta entitate bazkide guztiek osatzen dute.

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea, Batzar Nagusiaren xedapen eta arauak jarraikiz elkartaren interesak zuzentzen, kudeatzen eta ordezkatzen dituen gobernu-organoa da. Entitate bazkideek bakarrik izango dute gobernu-organoa parte hartzeko aukera. Zuzendaritza Batzordea entitate bazkide guztiek osatuko dute, eta bakoitza berak aukeratu duen pertsona fisiko batek ordezkatuko du. Gutxienez hiru hilean behin egin beharko dute bilera, jardura sozialen garapenak ahalbidetzen badu. Orain hilean behin egiten dute bilera.

Lan-batzordeak

- ⇒ Batzorde iraunkorra
- ⇒ Barne Sendotzerako Batzordea
- ⇒ Gizarte Itunerako Batzordea
- ⇒ Haurtzaro, Nerabezaro eta Gazteriaren Eskubideetarako Batzordea
- ⇒ Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea
- ⇒ Inklusio-batzordea Batzordea
- ⇒ GJH eta 2030 Agendarako Batzordea
- ⇒ Sexu-jazarpenaren, sexuagatiko jazarpenaren eta LGTBI* pertsonen aurkako jazarpenaren prebentziorako eta jarduketarako Protokoloaren Jarraipen Batzordea*

Lantalde teknikoa

2024an lau pertsonak osatu dute talde teknikoa: koordinatzailea, koordinazio-teknikaria, administrazio teknikaria eta komunikazioa eta kudeaketan laguntzeko teknikaria.



Zer egin dugu 2024an?

2.1. Euskadiko hirugarren sektore soziala indartzea eta dinamizatzea


Zuzendaritza Batzordearen 9 bilera eta Biltzar Nagusiaren 2 bilera baliagarriak izan dira sarearen barruko kohesioa indartzeko, askotariko ikuspuntuak partekatzeko, adostasunak lortzeko, irizpideak bateratzeko eta EHSSren sareen arteko etengabeko lankidetzan erabakiak hartzeko, eta, hala, beste eragile batzuekin eta Administrazio Publikoekin lankidetzan eta kooperazioa sustatzeko, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Presidenteak, presidente ordeak, idazkariak, erakundeko diruzainak eta koordinatzaile teknikoak eratutako **Batzorde Iraunkorra** 13 aldiz bildu da formalki.

Batzorde eta lan-talde hauek oso aktiboki jarraitu dute lanean aurtan:

- ➡ **Barne Sendotzerako Batzordea:** bi aldiz bildu da hirugarren sektore soziala indartzeko, egituratzeko eta barne-kohesioa lortzeko.

- ➡ **Sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta LGBTBI* pertsonen aurkako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloaren Jarraipen Batzordea:** Batzordea 3 aldiz elkartu da hainbat prestakuntza-saio egiteko eta EHSSko erakundeetan arlo horretan egin diren jardunbide egokiak jorratzeko.
- ➡ **Komunikaziorako eta Sentsibilizazio Sozialerako Batzordea:** Batzordea 7 aldiz elkartu da eta komunikazio-kanpaina prestatzen eta EHSSren Eguneko prestaketak eta hainbat komunikazio-kanpaina egiten jardun du.
- ➡ **Haur eta Nerabeen Eskubideen Aldeko Batzordea** 16 aldiz bildu da, besteak beste, erkidegoko hauteskunderen testuinguruan eragin politikoko ekintzak lantzeko, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira intzidentzia- eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko edo Haur eta Nerabeen Euskal Legearen jarraipena egiteko.
- ➡ **Gizarteratzeko Batzordea:** Batzorde hori 4 aldiz elkartu da, besteak beste, Bizitegi Bazterkeriaren II. Euskal Estrategia (2024-2028), MDCEren Inklusiorako Batzorde Mistoa edo Enplegu Pizgarrien Dekretuaren Proiektua jorratzeko.
- ➡ **GJHen eta 2030 Agendaren Batzordea,** 5 aldiz bildu da, besteak beste, gai hauek jorratzeko: Trantsizio Sozialeko Eragile Anitzeko Foroa eta 2030 Agenda Kudeatzeko Plana; GJHen erreferentziazko esparruaren gida - GJHak Sareen Sarearen kudeaketan txertatzeko autoebaluazioa; "GJH Proiektua - EHSSrentzako kudeaketa aurreratua"; edo "Guneak 2030 Erakundeek eta Sareen Sareak GJHei egindako ekarpena" txostena.
- ➡ **Kontzertu Sozialaren Batzordea.** 8 aldiz bildu dira gai hauek lantzeko: Kontzertu Sozialaren Dekretuaren zabalpena edo Nerea Malgosa sailburuarekin izandako bilera, EAEJANek Confebasken alde ebatzitako sententzia bategatik.



Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia

Hainbattaldetan etalan-batzordetan egindakolanariesker, **EHSS Sustatzeko Estrategiaren 2024ko Urteko Planaren** diseinuari ere ekarpena egin diogu, Sareen Sareak EHSS Eren Jarraipen Batzorde Mistoari emandako proposamenekin.

Sareen Sarearen III. Plan Estrategikoa 2024-2027



2024an Sareen Sarearen II. Plan Estrategikoa (2020-2023) ebaluatu ondoren, Sareen Sarearen **III. Plan Estrategikoa diseinatu eta onartu da (2024-2027)**. EHSSri buruzko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea, Euskadiko EHSS Sustatzeko Estrategia, genero-ikuspegia eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat etortzea dira sektoreak partekatzen dituen zeharkako osagarriak eta eragin nabarmena dute Sareen Sarearen orainaldiko edozein proposamen estrategikorengan.

Gaur egun, esan daiteke, bere garaian lehenengo planean adostutako ildo estrategikoa indarrean daudela eta erreferentziazkoak direla, salbuespen batekin: komunikazioa. Jarraian aurkeztuko dira ildo horiek.

“Gardentasunarekin” lotutakoa esparru etikoan. Hobe da zeharkakoa izatea piramide adierazgarriaren oinarritik puntaraino. Kanpo-komunikazioa zein barne-komunikazioa barne. Eta beste eragile, erakunde edo instituzio batzuetan zein oro har gizartean eragina izan behar du; hau da intzidentzia soziala izan behar du.



“Hedapen estrategikoa” lehen planean izandako islari jarraituz, planteatutako erronka nagusiaren (“EHSSren erreferentziazko eragile soziala” izatea) baitan bost ildo estrategikoa garatuko dira.

Plan Estrategikoa islatzen ditu Sareen Sareak elkarre gisa dituen nahiak, bai eta Sareen Sareak EHSSko erreferentziazko eragile sozial gisa dituenak ere. Dualtasun horren ondorioz, komeni da elkarrearen gobernu-organoe-tan azken urteetan behin eta berriz aipatutako funtsezko elementuetako batzuk ere kontuan hartzea.

Sareen Sarearen Komunikazio Estrategia

Sareen Sarearen Komunikazio Estrategiak Sareen Sarearen helburu estrategikoarekin bateratzen ditu bere helburuak eta ekintzak. Dokumentu luzea da eta erakundearen komunikazioaren oinarriak jasotzen dira bertan. Gida erabilgarri gisa dago diseinatuta eta behar berrietara egokitu daiteke. Estrategia horren helburua da komunikazioa modu estrategikoan kudeatzea eta Sareen Sareak gizarte inklusibo eta solidarioa sustatzeko duen posizioa indartzea.

Dokumentua lau arlo nagusitan dago antolatuta: sarrera, helburuarekin eta helburu horien garapenarekin; berrikuspen estrategikoa eta komunikazioaren testuinguruaren berrikuspena; bitarteko sozialak eta offlinekoak, bozeraileak eta krisi-protokoloa barne hartzen dituen kanpo-komunikazio plana; eta, azkenik, barne-komunikazio plana egiteko proposamena.

Estrategiako **Barne Komunikazio Plana** garatzeke dago oraindik. Plan hori funtsezkoa da erakundearen arrakastarako, batez ere, bere egituraren konplexutasuna eta dibertsitatea dela eta. Helburua da esparru argi eta koherentea ezartzea Sareen Sarearen barruko komunikazio-jarduera guztientzat, barne-komunikazioaren efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea, informazio-fluxua sustatzea eta parte izatearen sentimendua indartzea.

Barne Komunikazio Plana garatzeko, Sareen Sareak lan-saio bat egin du urrian sare kideekin. Dinamika parte-hartzaile horretan, barne-komunikazioaren beharren eta sarearen parte izatearen sentimenduaren gainean gogoetatu zuten.



Berrikuntza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak berrikuntza sozialeko (lankidetzako berrikuntza) hainbat ekimen sustatu ditu XII. Legegintzaldian zehar bere erantzukizun-arloan; hortaz, zerbitzuen eta gizarte-politiken arloan. Horiek indartzen, sustatzen, egonkortzen eta artikulatzen ahalegindu da eta urratsak eman ditu Europako ingurunearekin, eta, zehazki, ingurunerik gertukoenaekin (NAEN Euroeskualdea) lotzeko. Martxoaren 26an, "Gizarte Politiken arloko Berrikuntza Sozialeko Euskal Ekosistemari" buruzko bileran izan zen Sareen Sareko koordinatzailea. Topaketa horretan hartu zuten parte berrikuntza sozialaren arloan sustatzeko ekimenen bat zuten eta legegintzaldi honetan ekimen hori handitu, indartu eta elkar konektatu duten ekosistemako eragile guztiek.

Ondoren, udaberrian, Zerbitzuen eta Gizarte Politiken arloko Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema eratzeke oinarrien dokumentua igorri zigun Gizarte Politiketako Sailburuordetzak, oinarri horiek onartzeko prozesuan parte hartzeko. Horretarako, berrikuntzaren lantaldea aktibatu zen Sareen Sarean eta horren gaineko balorazio partekatua egin zen.



Jasangarritasuna: finantzaketa-iturriak

Jasangarritasunari dagokionez, sareentzako dirulaguntzen agindua eta Kontzertu Sozialaren Dekretuaren zabalpenaren jarraipena landu dira 2024an zehar eta Ferrer i Guàrdia Fundazioarekin lankidetzan jarraitu da finantzaketa-iturriak dibertsifikatzeko ikerketa-proiektuan.

2023an, Sareen Sarearen II. Plan Estrategikoaren (2020-2023) berrikuspena eta hurrengo Plan Estrategikoaren lehentasunezko ardatzen eta helburuen gaineko gogoeta egin eta gero, ondorioztatu zen beharrezkoa zela jasangarritasuna lantzea. Hala, “Jasangarritasuna” lehentasunezko ardatz horretan sakontzen joateko, Sareen Sareak Ferrer i Guàrdia Fundazioaren **“Ekintza sozialeko hirugarren sektoreko erakundeek finantzaketa”** proiektuan hartu zuen parte. Horren helburua zen estatuan azterketa bat egitea, Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektoreko erakundeek finantzaketa-iturriari dago-kienez dituzten erronka nagusiak eta egoera ezagutzeko.

2024an, Ferrer i Guàrdia Fundazioarekin elkarlanean jarraitu dugu, Sareen Sarearen Plan Estrategiko berriarekin bat etorritz. Oraingoan, **Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen finantzaketa-iturrien dibertsifikazioari buruzko** bigarren azterketan. Horretarako, Focus Group batean hartu dugu parte udan zehar eta hiru bilera egin ditugu adituen batzordean. Azkenik, azaroaren 14an, azterketa honen aurkezpenean izan ginen eta parte hartu genuen: “ESHS erakundeek finantzaketa: Jasangarritasun ekonomikoa eta finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa”.

Halaber, ekainaren 19an egindako Sareen Sarearen Asanbladan, Asuncion Monterok hartu zuen parte, Hirugarren Sektoreko Plataformako (HSP) Jasangarritasun Ekonomikoaren eta Ingurumenekoaren lehendakariordeak, HSP lantzen ari den jasangarritasunari buruzko mekanismoak eta proposamenak aurkezteko.

Azaroan, hainbat bilera egin ziren Kataluniako Hirugarren Sektoreko Taularekin, HSSko sareentzako finantzaketa-ereduen gaineko ezagutzak trukatzeko.




Sareen Sarean errealitate berriak gehitzea

Azaroaren 20an Bilbon egindako ezohiko batzarrean, Sareen Sareak onartu zuen “UNAD-Euskadiko Mendekotasunen Arretarako Sarea” elkartean sartzea. Sareen Sareko kide guztiek onartu dute UNAD kide izatea. UNADekin, 18 erakundek osatzen dute dagoeneko Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek sarea eta “UNAD-Euskadiko Mendekotasunen Arretarako Sareak” elkartean presente dauden gainerako arloekin egin du bat.



Sareko lana

2024an, **Sareen Sareko sareak eta erakundeak laguntzen** jarraitu dugu hainbat arlotan, esaterako, laguntza teknikoan, plan estrategikoen lankidetzan edo erakundeek finantzaketan.



2.2. Gobernantza eta eragin proaktiboa

Sareen Sareak parte hartzen dugun kontseilu, foro, eta plataformei buruzko informazioa koordinatzea, transmititzea eta trukatzea errazten du Sareen Sarea osatzen duten sareen bidez. Plataforma horiek administrazio publikoekin eta gizarte-eragileekin behar diren elkarrizketak mantentzen dituzte.

Sareen Sareak laguntza eta koordinazioa eskaintzen die **Eluskadiko Ekarrizketa Zibileko Mahaian (EEZM)** parte hartu duten sareei eta Sareen Sareko koordinatzaileak du EHSSko ordezkaritza, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean (EGAB) kontseilari gisa. Bi foroetan, Sareen Sarea lanak prestatu aurreko fasean eta lanak egin eta emaitzak ebaluatu ondoko faseetan lotzen, eztabaidatzen eta adosten saiatzen da.

Sareen Sareko koordinatzaileak aurten egin diren EEZMren ohiko bi saiotan hartu du parte.

Bestalde, Sareen Sareko koordinatzaileak, Sareen Sareko Zuzendaritza Batzordeko bi kideekin batera, Sareen Sareko eta EEZMko presidentetza barne, osatzen dute EEZMren Batzorde Iraunkorraren alde soziala. Aldiz, Gizarte Politiketako Sailburuordetzak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta bere aholkularitza taldeak batzorde instituzionala osatzen dute. Behin elkartu dira urtean zehar.

EEZMren Batzorde Mistoei dagokienez, Gizarteratze Batzordeak eta Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordeak EEZMren Batzorde Mistora eramateko edukiak eta proiektuak landu dituzte.

Martxoaren 14an izan zen Batzordearen lehen bilera eta Eusko Jaurlaritzak **berrikuntza-ekosistemaren** gainean antolatutako topaketa landu zen, hainbat eragileren parte-hartzearekin. Hala, 1205 aurreko Barometroaren datuen argitalpena, sareen finantzaketa eta EEZMren osoko bilkuran jorratu beharreko gaiak landu ziren.

EEZMren martxoaren 25eko osoko bilkuran, gai hauek jorratu ziren: Sareentzako subentzioen agindua, Kontzertu Sozialaren Dekretua eta EHSSko erakundeen errolda.

EEZMren abenduaren 16ko osoko bilkuran, gai hauek jorratu ziren: Sailaren talde berriaren, egituraren eta aurrekontuaren aurkezpena. Bai eta Batzordearen jarduerena ere.



Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari (EGAB) dagokionez, bere lanak bereziki handia eta produktiboa izaten jarraitu du, eta Sareen Sareko koordinatzaileak eta Sareen Sareko koordinazio-teknikariak hartu dute parte.. Koordinazioak eztabaidetan eta adostasunen bilaketan hartzen du parte Garapen Sozialerako Batzordean, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordean eta Osoko Bilkuran.



EHSSko ordezkariak Garapen Jasangarrirako Batzordearen 4 bileratan hartu du parte, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko (MSE) 9 bileratan eta 13 osoko bilkuratan, urtea amaitu arte. Euskadiko gobernuaren arauen garapenari buruzko izapideak landu dira eta Sareen Sareak eta beste EHSSko sare batzuek proposamenak aurkeztu dituzte. Jarraian jaso ditugu:

- **Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako EAEko 2030 Estrategia.**
- **Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duen Dekretuaren proiektua.**
- **EGABen 2023ko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko EHUren udako ikastaroa.**
- **Euskadiko Mendekotasunei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretuaren proiektua.**
- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietako dirulaguntzen onuradunei aplikatzen zaizkien enplegu-pizgarriak arautzeko dekretuaren proiektua.**

Memoria Sozioekonomikoaren (MSE) batzordeari dagokionez, 9 bilera egin ziren. Horietatik:

- Otsailaren 9an, Memoria Sozioekonomikoari buruzko UPV/EHUren udako ikastaro baterako aurreikusitako jardunaldiaren programa landu zen.
- Martxoaren 15ean oharrak gehitu genizkien EHSSren kontseilariak, EAPNk eta Hirukidek egindako Erronka Demografikoaren eta Bizi Baldintzen eta Babes Sozialaren kapituluei.
- El 21 de marzo se trabajó en torno al capítulo de Salud y Sistema Sanitario por una parte y, por otra, el de Medio Natural y Energía.
- Apirilaren 8an, EGABren topaketa prestatu zen, UPV/EHUren iraileko Udako Ikastaroetarako.
- Maiatzaren 10ean, 2023ko MSEren hirugarren zirriborroa eztabaidatu eta onartu zen. EAPNk bost ekarpen egin zizkion Babes Sozialaren kapitutuari, eta batzordeak hiru onartu ditu.
- Maiatzaren 31n, MSEren laugarren zirriborroa onartu zen.
- Ekainaren 14an, MSEren bosgarren zirriborroa eztabaidatu eta onartu zen.
- Ekainaren 28an eztabaidatu eta onartu zen 2023ko Memoria Sozioekonomikoa EHUren iraileko udako ikastaroan aurkeztea.
- Abenduaren 16an, 2024ko Memoria egiteko lanekin hasi zen batzordea.



Parte-hartzea Euskadiko Gobernu Irekirako Aliantzaz

Batez ere Gobernantzarekin lotuta, eta administrazio publikoetako maila guztiekin hitz eginez eta batera parte hartuz, Sareen Sarea 2018tik ari da lanean **OGP Euskadi Gobernu Irekirako Foro Erregularrean, Foro Irekian** eta **“OGP EUSKADI 2021-2024 Ekintza Planarekin”** lotutako bost Konpromiso Taldeetako batean, eta 2024 honetan, iLab, Euskadiren Partaidetzarako berrikuntza-gunearen talde eragilean.

Hala, otsailaren 6an, Sareen Sareak elkarriketa bat izan zuen Txileko Unibertsitate Australeko irakasle batekin, Jose Hernandezekin, Txileko Unibertsitate horrekin lankidetzan aritzeko Tokiko OGP Gobernu Irekiaren programari buruzko OGPan. Hau da, tokiko gobernu irekiaren mekanismoen ezarpena aztertu nahi du Txileko unibertsitate horrek eta Euskadik parte hartzen duen Tokiko OGP programa hartu nahi du azterketa-kasutzat.



Apirilaren 12an eta irailaren 27an, Sareen Sareko koordinazioa aurrekontu publikoak ikusteko tresnaren lehen bertsioaren eta amaierako proposamenaren aurkezpen-bileretan izan zen, “Aurrekontuen Gardentasunerako eta Kontuak Emateko Tresna” 2. konpromisoaren taldearen jarraipen-bileren barruan.

Azaroaren 27an, Sareen Sareko koordinazioak Foro Erregularraren Gizarte Zibileko kideen saioan hartu zuen parte, gai-zerrenda honekin: 2024an **Foro Erregularrak** egindako jardueraren errepasoa, lantaldeen egoeraren errepasoa eta Foro Erregularraren konpromiso bakoitzaren jarduerari eta Euskadiko OGP proiektuari buruzko informazioa.

Abenduaren 9an, Sareen Sareko koordinazioak Foro Erregularrean hartu zuen parte. Hau izan zen gai-zerrenda: Gobernu Irekiaren Euskadirentzako 2021-2024 Ekintza Planaren egungo fasearen eta konpromiso bakoitzaren aurkezpen laburra (konpromiso bakoitzeko liderrak). Gasteizko 2025eko OGP Global Summiti buruzko informazioa. Planaren Amaierako Ebaluazioaren plangintza. Ekintza Plan berria egiteko plangintza

Eta **iLaben, Euskadiko Parte Hartzearen Berrikuntzarako espazioan**, hauek hartu genuen parte:

- Urtarrilaren 17an, iLaben lehen Foro Irekian. Bertan, ordura arte egindako lana ezagutarazi zen eta Proiektu Esperimentalen Deialdira aurkeztu nahi duten ekimenei laguntzeko eta kontrastatzeko espazioa eskaini zen.
- Urriaren 12an, proiektu esperimentalen balorazioan eta hautaketan egin zen lan.
- Urriaren 29an, Talde Eragilearen 4. saioa egin zen. Saio horretan hiru gai landu genituen: 1. Parte-hartzearen berrikuntzan lan egiten duten eragileen rola. 2. Transferentzia-proiektuen emaitzak. 3. iLaben hurrengo urratsen gaineko ekarpenak.



Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa

Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroan dugun ordezkartzaren berezko lanekin jarraitu genuen (16 bilera).

Foroaren dekretu arautzailean Sareen Sareak aukeratutako Hirugarren Sektoreko hiru ordezkari titular eta hiru ordezkari daude, Osoko Bilkuran (2 bilera), Batzorde Iraunkorrean (1 bilera) eta Eraldaketa Sozialerako Taldean (1 bilera). 2024an, 2050eko Hiri Agendaren Taldean (3 bilera) eta Guneak espazioan hartu dugu parte, bere talde eragilearekin (9 bilera) batera.

Foroko eztabaida, bilera eta akordioetan parte hartzea koordinazio-lan handia izan da sareekin eta erakundeekin, interakzio- eta ezagutza-arlo asko antolatu behar baitira ordezkartzeko gizarte-sektore gisa ezagutza eta diskurtso bateratua eskaintzeko.

Foroaren Osoko Bilkuraren esparruan:

- Martxoaren 2an, Sareen Sareko presidenteordea eta koordinatzailea Foroaren Osoko Bilkuran izan ziren, eta Pablo Moratalla presidenteordeak hitza hartu zuen GJHen Gida-Esparrua EHSSra hurbiltzeko proiektua aurkezteko, Euskalitek egindako ikaskuntza-saioen bidez.
- Azaroaren 28an, Sareen Sareko presidenteordea eta koordinatzailea Foroko Osoko Bilkuran izan ziren, eta Pablo Moratalla presidenteordeak hitza hartu zuen "EHSSren parte-hartzea Gobernantzan" aurkezteko.



Foroaren Batzorde Iraunkorraren esparruan:

- Otsailaren 22an, Batzorde Iraunkorra bildu zen eta Foroaren 2023ko memoria eta 2024ko kudeaketa-plana aurkeztu zituen. Foroko lantaldeen aurrerapausoak aurkeztu zituzten eta Osoko Bilkuraren gai-zerrenda landu zuten.

Foroaren Eraldaketa Sozialerako Taldearen esparruan:

- Otsailaren 15ean, Foroaren Eraldaketa Sozialerako Taldearen bileran izan zen koordinatzailea. Komunean jarri zituzten Sareen Sareak Foroaren 2024ko kudeaketa-planari egindako eta lantalde horretan integratutako ekarpenak: Haurren Bermerako Estrategiaren jarraipena eta Euskadiko pobrezia-adierazleen bilakaerari buruzko azterketa.

Euskadi 2030 Guneak Lankidetzak Mahaiaren esparruan:

- Otsailaren 13an, koordinatzailea talde eragilearen eta Guneak taldearen bileretan izan zen eta Herritarren Parte Hartze Gidarekin eta 2030 Agenda Gida-Esparruarekin lotutako 2024rako proiektuen aurrerapenak aurkeztu ziren horietan. Martxoaren 22an egin zen legegintzaldi amaierako talde eragilearen balantzearen bilera.
- Lehendakaritzak sustatutako Sareen Sarea laguntzeko proiektuaren esparruan, eta Euskalitekin lankidetzan, hainbat lan-saio egin ziren Hirugarren Sektore Sozialerako sareekin eta erakundeekin: apirilaren 23an, ekainaren 14an eta urriaren 11n. GJHak, ekintza-planak eta Lehendakaritzaren GJHekiko eta GJHen aldeko Euskal Aliantzaren Gida-Esparrua landu ziren saio horietan.
- Irailaren 11n, talde eragilea Nazio Batuetako 2030 Agendaren Tokiko Koalizioko Idazkaritzako Presidenteari aurkezteko saioan, zein Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendako idazkaritza berriaren proposamenaren aurkezpenean hartu zuen parte koordinazioak.
- Abenduaren 19an, talde eragilean eta Guneak taldean aurkeztu zituzten 2025erako aurreikusitako aurrerapenak eta Berrikuntza Sozialerako eta 2030 Agendako 2025-2028rako Planaren proposamena.

Bultzatu 2050 Hiri Agenda Taldearen esparruan:

- Ekainaren 11n, koordinazio-taldeak Hiri Agendaren taldearen bileran hartu zuen parte. Legegintzaldi-aldaketa jorratu zuten, egindako lanaren balantzea egin zuten eta hurrengo lau urteetarako lehentasunak eztabaidatu ziren. Horrez gain, Bultzaturen hirugarren jarraipen-txostena aurkeztu zuten, 8. Lehentasun Estrategikoan oinarritua (“Dibertsitatea eta inklusioa identitate gisa”) eta martxoan Bilbon egin zen NBERen Expert Group Meeting-Habitati buruzko informazioa eguneratu zuten.
- Urriaren 17an, Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda Zuzendaritzako lantalde berriaren aurkezpenean izan zen koordinazioa, eta bertan izan ziren Juan Carlos Abascal sailburuordea eta Mikel Gargallo zuzendaria ere. Halaber, 6. Lehentasun Estrategikoan (“Hiri jasangarri eta erresilienteak”) oinarritutako hirugarren jarraipen-txostena aurkeztu zuten eta Nazio Batuetako 2030 Tokiko Bulegoko zuzendaria aurkeztu zuten.
- Abenduaren 11n, “Euskadi eta Hiri Jasangarriak: Aurrerapenak, Berrikuntza eta Nazioartekotzea” urteko konferentzia egin zen eta Euskadiko Hiri Agendaren 3. Txostena, Bultzatu 2050, aurkeztu zuten.

Intzidentzia politikoa arau, plan eta estrategietan

Une horretara arte azaldutakoaz gain, 2024an Jaurlaritzarekin eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde politikoekin bilerak eta harremanak izan ditugu proposamenak aurkezteko, eztabaidatzeko eta arlo politikoan hauei buruzko eragina izateko:

- EHSSko Sustapen Estrategiaren 2021-2024 Legegintzako Plana (diseinua). Urteko Planak.
- EEZMko HSSeko sareen finantzaketarako dirulaguntzen agindua
- Gizarte Itunaren Dekretua.

- Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko dekretua.
- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta gizarteratzearen Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen 2013ko azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua aldatzeko legea.
- Boluntariotzaren Estatuko Behatokia sortzeko eta arautzeko dekretu-proiektua.
- Enplegu Pizgarrien Dekretuaren Proiektua.
- Bizitegi Bazterkeriaren II. Euskal Estrategia (2024-2028)
- Haur eta Nerabeen Euskal Legea.
- Gazteen 2030 Euskal Estrategia.
- Euskadiko Haurren Bermerako 2030 Estrategia.
- Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2024ko otsailaren 8ko 1/2024 Legea: Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 2030 Estrategia eta epe luzeko bide-orria.

Otsailaren 15ean, Sareen Sareko presidentea eta Haur, Nerabe eta Gazteen Batzordea Eusko Legebiltzarrera joan zen Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako sailburuak gonbidatuta, **Euskadiko Haur eta Nerabeen Legea onartu** behar zutelako.



Aurretik aipatutako arauetan, planetan eta estrategietan eragina izateaz gain, harremana izan dugu Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin.

Urriaren 16an, **Etxebizitza eta Hiri Agendako Sailburutzak hala eskatu-ta, Denis Itxaso sailburuarekin**, Miguel de los Hoyos Etxebizitzako sailburuordearekin, Patricia Val Alokabideko zuzendari nagusiarekin eta Leire Alvarez de Eulate Alokabideko laguntza-unitateko arduradunarekin bildu ginen. Gure aldetik, presidentea, presidenteordea eta koordinatzailea joan ziren. Bileraren helburua da lankidetzarako bideak aztertzeke lehen kontaktua egitea.



Ondoren, azaroaren 15ean, Leire Alvarez de Eulaterekin bildu ginen Sareen Sarean, 2025eko ekitaldirako lankidetzaz-bideetan sakontzeko.

Eusko Jaurlaritzarekin ditugun harremanen barruan, 2024an harremanak izan ditugu **Ekonomia eta Ogasun Sailarekin**. Zehazki, Euskadiko FEDER 2021-2027 Programaren Jarraipen Batzordean hartu dugu parte, eta hiru eserleku izan ditugu gizarte zibilaren ordezkartzan.

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia

2024an, **Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren (HSSEB)** Jarraipen Batzordea urtarrilaren 16an soilik egin da. Gobernuordekariak, hiru aldundietakoek, Eudelekoek eta Sareen Sareko koordinatzaileak, presidentek eta presidenteordeak batzordean hartu genuen parte. 2023ko Behatokiaren jardura jorratu eta 2024ko programazioa aurkeztu zen bertan.

HSSEBko koordinatzaileak **2024ko jardura-memoria** aurkeztu zuen, ikerketa- eta sustapen-jardura askorekin. Gure kasuan, HSSren sarearen azterketa gehitzea proposatu genuen: identitatea, ezaugarriak, nortasuna eta sektoreari, beste eragileekiko harremanari, gobernantzari eta gizarte osoari eskaintzen dioten balioa.

Urtarrilaren 15ean, kontraste-saio bat egin zen zuzenean Sareen Sareko sareekin eta HSSEBekin, **EHSSren Liburu Zuriaren** lehen zirriborroari buruz. Halaber, Sareen Sareko koordinazioa Behatokiarekin bildu zen martxoaren 13an, Liburu Zuriaren erronken zirriborroa kontrastatzeko.

Urriaren 11n, bilera bat egin zen **Sareen Sarearen eta HSSEBren artean, HSSren egituraketari buruz**. Azkenik, azaroaren 6an HSSEBk antolatutako "EHSSren egituraketari buruzko tailerra: eraikuntza-prozesu baten iragana, orainaldia eta etorkizuna" tailerrean izan ginen.



Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del Tercer Sector Social

Harremanak alderdi politikoekin

2024an EAEko alderdi politikoekin izandako harremanen artean nabarmentzekoak dira **2024ko erkidegoko hauteskunde**en baitan egindako bilerak. Sareen Sarearen proposamenen dokumentua egin eta gero, legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei bidali zitzairen. Horrez gain, bilerak egin ziren haiek hala eskatuta:

- Urtarrilaren 24an, **Javier de Andres PP presidente berriarekin eta lehendakariarekin** eta Laura Garrido legebiltzarkidearekin elkartu ginen.
- Matxoaren 4an, **Miren Gorrotxategi Elkarrekin Podemoseko lehendakariarekin** elkartu ginen.
- Martxoaren 11n, **Eneko Andueza PSEko lehendakariarekin** elkartu ginen.
- Martxoaren 22an, **Imanol Pradales EAJko lehendakariarekin** eta Nerea Melgosa Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako sailburuarekin elkartu ginen.
- Apirilaren 17an, **Nerea Kortajarena EH Bilduko Gipuzkoako zerrendaburuarekin** elkartu ginen.

Europako hauteskundeei dagokienez, maiatzaren 21ean, **Idoia Mendia-rekin** elkartu ginen PSEren egoitzan eta EHSSko hainbat sare ere etorri ziren Sareen Sarearekin batera.

Bestalde, **A20 Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunarekin** lotutako eragin-kanpainaren barruan, Legearen garrantziarekin eta ibilbidearekin lotutako **lekukotzak eskatu zitzaizkien alderdi politikoei** eta argitaratu egin ziren. Horrez gain, Eusko Legebiltzarreko presidentearen eta Lurraldeetako Batzorde Orokorretako presidenteen adierazpen-proposamena eskatu zitzairen.

Legebiltzarrari dagokionez, ekainaren 4an, **Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentearekin** elkartu ginen, Haur eta Nerabeen Legebiltzarreko Batzordearen proposamena aurkezteko.



2.3. Harremanak eta aliantzak

2024an, beste sektore-plataforma batzuekin, gizarte-eragileekin eta unibertsitateekin dugun harremana sendotu dugu.

Hirugarren Sektore Sozialaren Plataforma eta Taula d'Entitats del Tercer Sector Social de Catalunya

Espainiako Hirugarren Sektoreko Plataformari (PTS) dagokionez, Sareen Sareak PTSren **Lurralde mailako Koordinazio Batzordean hartzen du parte (8 bilera)**. Sareen Sareak eta Kataluniako Taulak 2020ko apiriletik daramagu foroan parte hartzen, baina ez gara plataformako kideak organikoki. Batzorde horretako kideak dira, besteak beste, PTSko presidentea eta plataforma autonomikoetako presidentetzak. Positiboa da ekarpenen trukearekin lotuta egindako balorazioa.

2024an, lankidetzan aritu ginen Heldutasun Digitalerako Tresnan, "PTS eraldatzea" gure proiektuaren barruan, eta **Asuncion Montero Fuentes Jasangarritasun Ekonomikoko eta Ingurumeneko presidenteordea gonbidatu genuen Sareen Sareko Batzar Orokorrera**, HSSren Jasangarritasuna aurkezteko eta eztabaidan parte hartzeko.



Kataluniako Hirugarren Sektorearen Taularekiko harremanei dagokionez, Sareen Sareko koordinatzailea Taulako zuzendariarekin bildu zen irailaren 17an, hark eskatuta, Kataluniako Kongresuko aldi baterako eta logelako alokairu-kontratuak arautzeko Lege proposamenaren harira. Bestalde, azaroan zehar, Sareen Sarea hiru aldiz elkartu zen Taularekin HSSren sareetara bideratutako dirulaguntzen ereduak partekatzeko eta kontrastatzeko.

Unibertsitateak eta Ikerketa Zentroak

- 2024ko urtarrilean, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak 2040rako Euskadiren ongizaterako lehiakortasunaren ikuspegia eta erronkak eraikitzeke prozesuaren txostenak argitaratu zituen. Txosten horiek Sareen Sarearekin kontrastatu zituen alde aurretik.
- Martxoaren 8an, Europako Bolster proiektuaren barruan, Sareen Sareko koordinatzailea elkarrizketatu zuen Herbehereetako Tilburg Unibertsitateko Zuzenbide Publikoa eta Gobernantza Saileko Anäelle Bueno irakasleak.
- Martxoaren 12an, Sareen Sareko koordinatzailea Behatuz-Gizarte Zerbitzuetako Euskal Behatokiarekin elkartu zen, bi erakundeen arteko lehen harremana egiteko.
- Maiatzaren 9an, koordinatzailea Ferrer i Guàrdia Fundazioarekin bildu zen berriro, 2024an egindako Ekintza Sozialeko Hirugarren Sektorearen finantzaketa-iturrien dibertsifikazioari buruzko bigarren azterketa aurkezteko eta bertan parte hartzera gonbidatzeko.
- Maiatzaren 23an, Sareen Sareko koordinatzailea EHUko Imanol Telleriarekin elkartu zen. Nafarroako Gobernua GJHen Foro bat garatzea planteatzen ari da eta bileran Eusko Jaurlaritzaren GJHen Eragile Anitzeko Foroaren gure ikuspegia/balorazioa partekatu genuen.
- Maiatzaren 30ean, koordinazioa Ferrer i Guàrdia Fundazioarekin elkartu zen, eta 2024ko ParticipaTIC projektuan parte hartzera gonbidatu zuen Sareen Sarea.
- Ekainaren 18an, Gasteizen egindako "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema" liburuaren aurkezpenean izan zen koordinatzailea. Gure Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bilakaeran eta karakterizazioan eragina duten osagarriak biltzeko eskuliburua. EHSSri buruzko atal bat du, Sareen Sareko koordinatzaileak idatzita.
- Ekainaren 29an, Deustuko Unibertsitateko graduondoko ikasleek Sareen Sareko koordinatzailea elkarrizketatu zuten gazteriari eta boluntariotzari buruzko graduondoko baterako.

- Irailaren 11n, Sareen Sareko koordinatzailea EHUKo Prestakuntzako Errektoreordearekin elkartu zen, haren ekimenez, UPV/EHUK irailaren 27an egingo zuen Mikrokredentzialei buruzko jardunaldiko mahai-inguru batean parte hartzera gonbidatzeko, beste eragile sozial batzuekin batera (Euskadiko Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa, Confebask eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila). Prestakuntza-beharrak eragile parte-hartzaileen errealitatetik jorratu ziren.
- Irailaren 25ean, Sareen Sareko koordinazioa Deustuko Unibertsitatearen ikasturtearen inaugurazioan izan zen, Donostian.



Enpresa-erakundeak eta sindikatuak

2024ko urtarrileko Zuzendaritza Batzordean onartu zen 2023ko ekainean **FIARE Banku Etikoari** egindako gonbidapena, aurrezkoa kudeatzeko irabazi asmorik gabeko kreditu-kooperatiba horretako akzionista izateko, helburu sozialak eta ingurumenekoak dituzten ekimen sozio-ekonomikoetara bideratuz. Ekainean bilera bat egin zen **Sareen Sareak finantza-erakundearekin sinatutako hitzarmena eguneratzeko**, zaharkitua baitzegoen. Eta, azkenean, irailaren 16an sinatu zen.



Otsailaren 14an, Bizkaiko erakunde sozialentzako **CEBEKen 2024ko Pro Bono deialdia** aktibatu zen berriro, Sareen Sarearen lankidetzarekin.

Ekainaren 20an, **koordinatzailea Juan Manuel Sinderekin** elkartu zen, aurkezteko eta **Arizmendiarrreta Fundazioaren** bidez sinergiak egiteko interesa zuelako. Zehazki, Fundazioaren sari-banaketa bateko epaimahaian parte hartzera gonbidatu gintuen. Eta Sareen Sareak sarituen hautaketa-prozesuan hartu du parte, azaroan egindako hainbat bileratan.

Uztailaren 18an, **Sareen Sareko eta EAPNko koordinazioa Bisubi Fundazioarekin** bildu zen, eta Bilboko Utopia Jatetxearen proiektua garatzen laguntzea planteatu zioten. Jatetxe horren helburua da egoera zaurgarrian dauden pertsonen esperientzia gastronomikoez doan gozatu ahal izatea.

Beste ekitaldi batzuk

Sareen Sareak 2024an antolatu dituen edo parte hartu duen ekitaldien zerrenda egingo dugu. Dagoeneko azaldu ditugunez gain, hauek nabarmenduko ditugu:

- ⇒ “Aspaldikoren 25. urteurrena” urtarrilaren 15ean. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.
- ⇒ Futuro en Comúnek antolatutako “Euskadiko gizarte zibilaren I. topaketa. Planetaren trantsizio bidezko eta jasangarrirako bideari ekiten” topaketa, urtarrilaren 30ean Bilbon. Sareen Sareko koordinatzaileak gizarte zibileko sektoreen arteko esperientzia-mahai batean hartu zuen parte, 2030 Agenda sustatzeko.
- ⇒ Bizkaiko Psikologo Elkargoak Sareen Sarea gonbidatu zuen “Psikologia Sariak” sarien epaimahaian parte hartzera (apirilak 29) eta sari banaketara (maiatzak 17).
- ⇒ BBK Kunak eta UN Etxeak antolatutako “Gizarte Zibilaren eta eragile sozialen parte hartzea NBERen Etorkizunaren Goi Bileran. 2030 Agendatik harago” jardunaldia (ekainak 6).
- ⇒ Hirube Kooperatibaren V. urteurrenaren ospakizuna (ekainak 7). Sareen Sareko koordinatzailearen esku-hartzea: “Hirugarren Sektore Sozialak Gizarte Zerbitzuen Sistemari dituen erronkak”.
- ⇒ “Euskadiko IV. Inklusio Jardunaldia” politika publikoen ebaluazioa instituzionalizatzeko erronken gainean (ekainak 12).
- ⇒ EDEk uztailaren 15ean egindako “EHSSren inpaktuaren kudeaketari eta ebaluazioari buruzko ikaskuntzako komunitatea” tailerra.
- ⇒ Eusko Ikaskuntzak irailaren 17an egindako “Gizarte Politiken Jasangarritasun Finantzarioaren” tailerra.

- ⇒ Eguia Careaga Fundazioaren “Zaintzak komunitatean” mintegia (irailak 18), adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak komunitatean zaintzeko estrategia eraginkorren gainean eztabaidatzeko.
- ⇒ Urriaren 3an, Sareen Sareko koordinazioa EDE Fundazioaren “EHSSko inpaktuaren kudeaketari eta ebaluazioari buruzko ikaskuntzako komunitatea” topaketan izan zen. Gogoetak Carlos Ballesterosekin, Comillas-ko Unibertsitateko Inpaktu Sozialaren Katedrako zuzendariarekin, HSSren inpaktuaren kudeaketan izandako esperientziei buruz.
- ⇒ UN Etxeak abenduaren 2an antolatutako “Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia” prestakuntza-tailerra. Sareen Sareko koordinatzailea izan zen bertan.



2.4. EHSSren posizionamendu soziala

Ezinbestekoa da sektorearen sustapena eta aitorpena, **eragin publikoa** eta beste gizarte-talde batzuekin **harreman estrategikoak**, kolaboraziokoak eta aliantzakoak eraikitzea Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala erreferentziazko gizarte-eragileen artean kokatzeko duen helburua betetzeko.

Gure mezua EAEko gizarteari zabaltzeko, **topaketa eta komunikazioa errazten duten hainbat tresna** erabiltzen ditugu: ekitaldi publikoak, komunikabideak, informazioaren eta komunikazioaren eta ikus-entzunezko euskarrien teknologiak.

2024an, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren posizionamenduarekin, sustapenarekin eta gizartera irekitzearekin lotuta mugarri esanguratsuak egon dira.



Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna 1205

2024an, **1205-EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGUNA** izan zen eta instituzioetako, sektoreko sareetako eta erakundeetako 130 pertsona bildu ginen Bilboko Itsasmuseumean. Dagoeneko ohikoa den moduan, ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakaria eta beste autoritate batzuk izan ziren. **“Aldaketa eraikiz”** lelopean egin zen ekitaldia eta baita ekitaldiarekin lotutako sare sozialetako kanpaina ere, hamar egunez, eraldaketa sozialaren alde lan egiteko beharra eta Euskadi dibertsoagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa eraikitzeke beharra aldarrikatuz.



Aste batzuk lehenago, herritarrentzako ariketa parte-hartzaile irekia egin genuen: eraldaketa sozialerako piezak jarri behar ziren horma-irudi batean. 1205eko Bilboko ekitaldi instituzionalean parte hartu zuten pertsonak ere osatu ahal izan zuten horma-irudi hori, eta egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko aldaketa sozialarekin konprometitutako ekintza kolektiboa sinbolizatzeke piezak jarri zituzten.



Aurtengo mahai-inguruaren gaia Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko gazte boluntarioak izan da.



Kanpainaren ideia eta ekimen parte-hartzailea Sareen Sarearen Komunikazio Batzordearen saio batean definitu dira, Sareen Sareko lantalde teknikoak koordinatuta. Kanpainak izan dituen inpaktuaren emaitzak oso positiboak dira, ebaluazio-txostenetik ondorioztatutakoaren arabera.

Informazio guztia, bideoak barne, [gure webgunearen bitartez kontsulta daiteke](#).

2024ko erkidegoko Hauteskunde kanpaina

2024ko Erkidegoko Hauteskundeak zirela eta, Sareen Sareak komunikazio-kanpaina bat egin zuen EHSSren proposamenak zabaltzeko. Kanpainak hainbat komunikazio-ekintza zituen, hala nola eskuorri bat diseinatzea proposamenekin, argitalpen bat sare sozialetan, bideoak, prentsa-oharra eta newsletter digital bat zabaltzea.



Gainera, ekainaren 9ko **Europako Hauteskundeak** harira, komunikatu bat zabaltzeko gure **Europa sozialago baten aldeko gure proposamenekin** eta Idoia Mendia Europako Parlamentuko PSEko hautagaiarekin izandako bileraren berri eman genuen.



Sareen Sarearen X. urteurrena

2024an hainbat komunikazio-ekintza egin ditugu Sareen Sarearen hamargarren urteurrena oroitzeko. Besteak beste, webgune berri bat diseinatu dugu denbora-lerro batekin, erakundearen mugarririk garrantzitsuenak errepasatzeko, eta bideo-elkarrizketa batzuk egin dizkiegu Gonzalo Rodriguez Sareen Sareko lehen presidenteari eta Soraia Chacon egungo presidenteari.



Beste kanpaina batzuk

2024an, hainbat komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina egin ditugu, adibidez, **Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren** harira. Kasu horretan, kanpaina handia egin dugusare sozialetan eta offline bitartekoetan. Gainera, ikus-entzunezko kanpaina txikiak egin ditugu nazioarteko beste egun batzuen harira, adibidez, Hezkuntzaren Nazioarteko Egunaren edo Justizia Sozialaren Nazioarteko Egunaren harira.



Radio Popularrekin kolaborazio-hitzarmena

2024an Radio Popularren «**Es posible**» programan parte hartzen jarraitu zuen Sareen Sareak; hari atxikitako sare eta entitate gehienek parte hartu zuten bertan. Juanma Jubera kazetariak zuzendutako programa honetan entitateek beren errealitatearen, egiten duten lanaren, dituzten proiektu berrien edota ekitaldi puntualen berri emateko aukera izan dute.



KOMUNIKAZIOA

3

Zer komunikatu dugu?

Agerraldiak komunikabideetan

2023an Sareen Sareak komunikabideetan egindako 63 agerraldi zenbatu ditugu, gutxienez. **Hautaketa honek bost garrantzitsuenetakoak jasotzen ditu:**

- ➡ **Radio Popular:** [Sareen Sarea celebra el 10 de mayo el Día del Tercer Sector Social en Bilbao](#)
- ➡ **El Correo:** [168.000 voluntarios y 45.600 empleados trabajan en las entidades sociales vascas](#)
- ➡ **El Correo:** [Hacia una Euskadi más inclusiva y solidaria](#)
- ➡ **Estrategia Empresarial:** [Sareen Sarea apela a una colaboración institucional](#)
- ➡ **EntreMayores:** [Sareen Sarea reclama 'políticas coherentes y sostenibles' a los candidatos para las próximas elecciones en Euskadi](#)
- ➡ **Noticias de Álava:** [UNAD Euskadi Hirugarren Sektore Sozialeko Sareen Sarean sartu da](#)



Sareen Sarearen komunikabideak

Sareen Sareak webgune bat, buletin digital bat eta profilak ditu hainbat sare sozialetan. Jarraian, gure gizarte-hedabideek 2024an izan zuten eraginari buruzko daturik garrantzitsuenak azalduko ditugu.

- 

651 txio | 44.400 inpresio | 3.560 interakzio
1.618 jarraitzaile
- 

443 post | 32.324 pertsonako irismena | 2.008 interakzio
924 jarraitzaile
- 

419 post | 28.674 inpresio | 1.338 interakzio
342 jarraitzaile
- 

302 post | 20.074 inpresio | 1.734 interakzio
336 jarraitzaile
- 

30 bideo | 1.745 bistaratze | 37.076 inpresio
- 

82 albiste (41 gaztelaniaz eta 41 euskaraz) | 27.435 bisita
11.686 erabiltzaile
- 

15 Sare Berri buletin (12 hileko + 3 berezi)
614 harpidedun



KONTUAK ARGI
4



2024ko DIRU-SARRERAK	
Bazkideen eta afiliatuen kuotak	17.500,00
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	205.000,00
Bestelako diru-sarrerak	20.421,55
2024ko DIRU-SARRERAK GUZTIRA:	242.921,55
2024ko GASTUAK	
Errentamenduak eta kanonak	28.432,81
Konponketak eta mantenimendua	6.202,65
Zerbitzu profesionalak	14.868,53
Garraio-gastuak	442,89
Aseguruetak primak	303,95
Banku-zerbitzuak eta antzekoak	597,24
Publizitatea, propaganda eta HH.PP.	3.805,49
Hornidurak	1.607,32
Beste zerbitzu batzuk	4.492,47
Beste zerga batzuk	3,86
Langileen gastuak	169.163,66
Beste kudeaketa gastu batzuk	53,09
Finantza-gastuak	733,44
Ibilgetu materialaren amortizazioa	1.745,05
2024ko GASTUAK GUZTIRA	232.452,45



Sareen sareia

**Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala**

**Tercer Sector Social
de Euskadi**

www.sareensarea.eus